ABUZTUA 2026 AGOSTO 48. ZENBAKIA

# EASO BERRIAK

Boletín de noticias del CORO EASO

## ACTOS CONMEMORATIVOS DEL 31 DE AGOSTO

Aurten ere, EASO Abesbatzak bat egingo du Abuztuaren 31ko Oroitzapen Ekitaldiekin Donostiako kultur eta oroimen egutegiko hitzordu garrantzitsuenetakoan. EASO Abesbatzak oroimenaren zerbitzura jarriko du bere musika, 1813ko sutearen biktimei omenaldia egingo dieten bi ekitaldi hunkigarritan parte hartuz.

**12:00etan Santa Maria basilikan**

EASO Gaztek Meza Nagusian parte hartuko du, oroitzapenezko ekitaldien egitarau ofizialaren barruan. Ospakizuna hiriko tenplurik enblematikoenetako batean egingo da, eta elkartze, oroimen eta esker ona adierazteko une bat izango da. Bertan, EASO Gazte abesbatzaren esku-hartzeak zeremoniaren izaera solemne eta espirituala nabarmentzen lagunduko du.

**21:30ean Abuztuaren 31 kalean**

EASO Gazte, EASO Beteranoak eta EASO Ahots Mistoen Abesbatzak 1813ko abuztuaren 31ko gertaerak oroitzen dituen omenaldi herrikoian parte hartuko dute, Donostia ia erabat suntsitu baitzuen sute batek, tropa anglo-portugaldarrek hiria hartu ondoren.

Donostiako hainbat elizatan kanpaiak jo ondoren, ohiko prozesio zibikoa hasiko da kandelaz eta zuziz bakarrik argitua, Abuztuaren 31 kalea oroimen, errespetu eta hausnarketarako gune bihurtzen duen itzalaldi sinbolikoan. EASOren parte-hartzeak musikaren dimentsioa emango dio hiriko zeremonia hunkigarri eta adierazgarrienetako bati.

Parte hartze bikoitz honekin, EASOk Donostiako historia, memoria kolektiboa eta bizitza kulturalarekiko duen konpromisoa berresten du, musika oroimenaren zerbitzura jarriz.




*Un año más, Coro EASO se sumará a los Actos Conmemorativos del 31 de Agosto, una de las citas más significativas del calendario cultural y memorial de Donostia. El Coro EASO pondrá su música al servicio del recuerdo, participando en dos emotivos actos que rendirán homenaje a las víctimas del incendio de la ciudad en 1813.*

***Basílica de Santa María | 12:00 h***

*EASO Gazte participará en la Misa Solemne, integrada en el programa oficial de los actos conmemorativos. La celebración, que tendrá lugar en uno de los templos más emblemáticos de la ciudad, será un momento de recogimiento, memoria y gratitud, donde la intervención coral de EASO Gazte contribuirá a realzar el carácter solemne y espiritual de la ceremonia.*

***Calle 31 de Agosto | 21:30 h***

*EASO Gazte, EASO Beteranoak y EASO Ahots Mistoen Abesbatza participarán en el tradicional homenaje ciudadano que recuerda los acontecimientos del 31 de agosto de 1813, cuando Donostia fue prácticamente destruida por un incendio tras la toma de la ciudad por las tropas anglo-portuguesas.*

*Tras el repique de campanas en distintas iglesias de Donostia, dará comienzo la tradicional procesión cívica, iluminada únicamente por velas y antorchas durante el simbólico apagón que convierte la calle 31 de Agosto en un espacio de memoria, respeto y reflexión. La participación de EASO aportará la dimensión musical a una de las ceremonias más emotivas y representativas de la ciudad.*

*Con esta doble participación, EASO reafirma su compromiso con la historia, la memoria colectiva y la vida cultural de Donostia, poniendo la música al servicio del recuerdo.*

## AGENDA AGOSTO

2026/08/02 20:00
CATEDRAL DEL BUEN PASTOR (DONOSTIA)
EASO CUM JUBILO
**WOFGANG SEIFEN, ÓRGANO**
**CÍCLO DE ÓRGANO QUINCENA MUSICAL**

2026/08/07 19:00
TABAKALERA (DONOSTIA)
EASO SINFONIETTA ETA EASO ABESBATZAKO KORALISTAK
**ZOMOZORROAK**
**QUINCENA MUSICAL**

2026/08/12 19:00
TEATRO VICTORIA EUGENIA (DONOSTIA)
EASO GIZONEN ABESBATZA
**ARRIAGA HARRIGARRIA**
**QUINCENA MUSICAL**

2026/08/19 20:00
AUDITORIO KURSAAL (DONOSTIA)
EASO AHOTS MISTOEN ABESBATZA
**REQUIEM DE HECTOR BERLIOZ**
**QUINCENA MUSICAL**

2026/08/26 20:00
AUDITORIO KURSAAL (DONOSTIA)
EASO AHOTS MISTOEN ABESBATZA
**9ª SINFONIA DE BEETHOVEN**
**QUINCENA MUSICAL**

2026/08/31 12:00
BASILICA SANTA MARIA (DONOSTIA)
EASO GAZTE ABESBATZA
**MISA SOLEMNE**
**ACTO CONMEMORATIVO 31 DE AGOSTO**

2026/08/31 12:00
CALLE 31 DE AGOSTO (DONOSTIA)
EASO GAZTE, EASO BETERANOAK ETA EASO AHOTS MISTOEN ABESBATZA
**ACTO CONMEMORATIVO 31 DE AGOSTO**

# CORO EASO EN LA 87ª QUINCENA MUSICAL DE SAN SEBASTIÁN

Beste urte batez, EASO Abesbatzaren presentzia nabarmena izango da Donostiako 87. Musika Hamabostaldian, eta bost kontzertutan parte hartuko du hainbat talderekin, abesbatzen bikaintasunarekin duen konpromisoa eta Europako musika-jaialdi ospetsuenetako batekin duen lotura sendotuz.

**Abuztuak 2 | Artzain Onaren katedrala | 20:00etan**

EASO Cum Jubilok Organo Zikloan parte hartuko du Wolfgang Seifen organo-jotzailearekin batera, euskal gaien inguruko inprobisazioak eskainiko dituzte kontzertuan.

Sarrera doan aretoa bete arte.

**Abuztuak 7 | Tabakalera | 19:00etan**

EASO Sinfonietta eta EASO Abesbatzako koralistek “Zomozorroak” estreinatuko dute, publiko familiarrari zuzendutako kontzertu pedagogiko dramatizatua izango dena.

Sarrerak:
https://tickets.quincenamusical.eus/selection/event/date?productId=10229716924910

**Abuztuak 12 | Teatro Victoria Eugenia | 20:00etan**

EASO Gizonen Abesbatzak, Euskadiko Orkestrarekin batera eta Juanjo Menaren zuzendaritzapean, Juan Crisóstomo Arriaga omenduko du bere heriotzaren berrehungarren urteurrenean.

Sarrerak: https://tickets.quincenamusical.eus/selection/event/date?productId=10229716924910

**Abuztuak 19 | Kursaal Auditorioa | 20:00etan**

EASO Ahots Mistoen Abesbatzak Hector Berlioz-en *Requiem monumental*a interpretatuko du Euskadiko Orkestra, Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoiarekin batera.

Sarrerak agortuta daude.

**Abuztuak 26 | Kursaal Auditorioa | 20:00etan**

EASO Ahots Mistoen Abesbatzak Beethoven-en *Bederatzigarren Sinfonia* interpretatuko du, Seoul Philharmonic Orchestrarekin batera.

Sarrerak: https://tickets.quincenamusical.eus/selection/event/date?productId=10229716924907&lang=eu

Presentzia artistiko zabal horrekin, EASOK, beste behin ere, Donostiako Musika Hamabostaldiko erreferente koral handienetako bat bezala betetzen duen rola sendotu du, errepertorio sinfoniko-koraletik sorkuntza pedagogikora eta organo ziklora arteko proposamenetan parte hartuz.

*La 87ª Quincena Musical de San Sebastián volverá a contar con una destacada presencia de Coro EASO, que participará en cinco conciertos a través de distintas formaciones, reafirmando su compromiso con la excelencia coral y su estrecha vinculación con uno de los festivales de música más prestigiosos de Europa.*

***2 de agosto | Catedral del Buen Pastor | 20:00 h***

*EASO Cum Jubilo participará en el Ciclo de Órgano junto al organista Wolfgang Seifen, en un concierto gratuito con improvisaciones sobre temas vascos.*

*Entrada libre hasta completar aforo.*

***7 de agosto | Tabakalera | 19:00 h***

*EASO Sinfonietta y coralistas de Coro EASO estrenarán “Zomozorroak”, un concierto pedagógico dramatizado dirigido al público familiar.*

*Entradas: https://tickets.quincenamusical.eus/selection/event/date?productId=10229790276947*

***12 de agosto | Teatro Victoria Eugenia | 20:00 h***

*El Coro de Hombres EASO, junto a Euskadiko Orkestra y bajo la dirección de Juanjo Mena, rendirá homenaje a Juan Crisóstomo Arriaga en el bicentenario de su fallecimiento.*

*Entradas: https://tickets.quincenamusical.eus/selection/event/date?productId=10229716924910*

***19 de agosto | Auditorio Kursaal | 20:00 h***

*EASO Ahots Mistoen Abesbatza interpretará el monumental Réquiem de Hector Berlioz junto a Euskadiko Orkestra, Bilbao Orkestra Sinfonikoa y el Orfeón Donostiarra.*

*Entradas agotadas.*

***26 de agosto | Auditorio Kursaal | 20:00 h***

*La participación de EASO Ahots Mistoen Abesbatza culminará con la interpretación de la Novena Sinfonía de Beethoven, junto a la Seoul Philharmonic Orchestra.*

*Entradas: https://tickets.quincenamusical.eus/selection/event/date?productId=10229716924907&lang=eu*

*Con esta amplia presencia artística, EASO consolida, una edición más, su papel como uno de los grandes referentes corales de la Quincena Musical de San Sebastián, participando en propuestas que abarcan desde el repertorio sinfónico-coral hasta la creación pedagógica y el ciclo de órgano.*